

Garizumako 5. Igandea A

129. Salmoa

L.a. 95 / S.a. 9

(5+4 / 5+4)

Jau - na bi - ho - tzez da be - te - a, zoin mai - te du - en sal - ba - tze - a!

**Jauna bihotzez da betea,
zoin maite duen salbatzea.**

Leize hautarik zuri oihuz,
Entzun nezazu, entzun, Jauna !
Dena beharri nitaratuz,
Entzun nik egin dei auhena !

Gaizkiez orroit bazaude zu,
Zuri so, Jauna, nor dagoke ?
Denen barkatzen maite duzu :
Beldur bezenbat badut bake.

Jaunaren beha dut bihotza,
Egia daukat haren hitza.
Nik segurago Jauna goza,
Gau zainek baino goiz-argia.

Jauna bihotzez da betea :
Zoin maite duen salbatzea.
Hak du Izrael salbatuko :
Hoben guziak joanen daizko.